

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA



2020-2023



AURKIBIDEA

1.	Sarrera	2
2.	Lege oinarriak	3
3.	Lan prozedura	7
4.	Debako I. Berdintasun Planaren ebaluazioa eta kontrastea	10
5.	Debako II. Berdintasun Planaren egitura	16
6.	Debako II. Berdintasun Plana	24
7.	Debako II. Berdintasun Plana Kudeatzeko egiturak	44
8.	Eranskinak	47

1- SARRERA

Dokumentu honetan Debako Udalak 2020-2023 urteetan bere berdintasun politikak garatzeko jarraituko duen norabidea dago jasota.

Azken urteotan, hainbat aurrerapauso eman dira lege-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Nazioarte edo estatu mailan ez ezik, foru erkidego ezberdinetan eta udal mailan ere aurrerapauso handiak ematen ari dira maila legalean. Zentzu horretan, legeek aitortutako berdintasun adierazpen formaletatik at, benetako berdintasuna lortzea da egungo berdintasun politiken erronka nagusia. Berdintasun erreal horretara urratsak ematea da hain zuzen, dokumentu honetan aurkezten den Debako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Planaren helburua.

Debako I. Berdintasun Planaren indarraldia amaitu zenean (2011), udalerriko berdintasun politikek etenaldia izan zuten. Berdintasun arloaren aurrekontua erdira murriztu zen aurreko urtekoarekin alderatuz, eta 2016. urtera arte ez zuen igoerarik izan. Baina 2016. urtetik aurrera, berriz ere berdintasun politikei bultzada emateko nahia erakutsi du Udalak. Ordutik, urtean-urtean aurrekontuak igotzen jarraitu du, eta 2019an I. Berdintasun Planaren ebaluazioa egin eta II. Plana egiteko prozesua martxan jarri du.

Tresna honen erabilera ziurtatzeko, herriko eta udaleko berezko ezaugarriak kontuan hartu dira, helburu eta helmuga errealak markatu dira, eta aldi berean neurgarriak eta testuinguruari egokituak diren adierazleak ezarri dira.

Plan hau udal politikaren sektore guztiek zeharkakotasunez erabiltzeko tresna bat izan behar da; maila horretan, beste arloetako programa eta planekin uztartzeko ahalegin berezia egin da.

2- LEGE-OINARRIAK

Aurrerago esanda bezala, Debako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Planaren oinarri dira azken urteotan nazioarte mailan eta estatu, autonomi erkidego edo udal mailan onartutako testu legalak.

Honako hauek dira horietan garrantzitsuenak:

- ⇒ Apirilaren 2ko 7/1985 Legea. Tokiko erregimenaren oinarria arautzen duena. 2003-12-21 ean eguneratua.
- ⇒ Otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea. (EAE)
- ⇒ Martxoaren 22ko 4/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun eraginkorrerako Legea. (Espainiar estatua)
- ⇒ Tokiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Eskutitza.
- ⇒ 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- ⇒ EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana.

Azpimarratu beharrekoak dira, Debako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Plana egiterakoan oinarri izandako bi erreferentzia aipagarrienak: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana.

✓ **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea**

EAEko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Autonomi Erkidego mailan berdintasun politikak garatzerako orduan kontuan izan beharreko zenbait irizpide ezartzen ditu. Horretarako, berdintasun politiketan oinarritzko diren zenbait kontzeptu definitzeaz gain, legearen **7. artikuluan**, tokiko **administrazioen funtzioak** zehazten ditu:

- a) *Genero ikuspuntua integratzeko, prozesu, programa eta estrukturen egokitzapena eta eginkizuna du.*
- b) *Ekintza positiboan jardute neurriak.*
- c) *Foru Aldundiei dagokien programazioa eta Gobernuaren planifikazio orokorraren testuinguruko planifikazioa.*
- d) *Emakume eta gizonen ezberdintasunen gaineko ezagutza erreal bat izateko, beharrezko diren estatistika eguneratuen egokitze eta mantentzeak burutzea. Eta berdintasuna bultzatzeko beharrezko neurriak martxan jartzea.*
- e) *Udal herri mailan emakume eta gizonen egoerari buruzko ikerketa eta azterketak garatzea.*
- f) *Emakume eta gizonen egoera ezberdinari buruzko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea. Eta berdintasuna lortzeko martxan jarri beharreko neurriei buruzko sentsibilizazio kanpainak garatzea.*

- g) Herriko araudiari jarraipena egin eta emakume eta gizonen berdintasun printzipioa aplikatzeko adostasuna aurrera eramatea.*
- h) Herriarentzako informazio eta orientazioa ematea, bereziki emakumeei, berdintasunen inguruko errekurtsio eta programei buruz. Eta bazterketa anitza pairatzen duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programei buruzko informazioa zabaltzea.*
- i) Emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programen aurkezpenak egin eta berauek aurrera eramatea.*
- j) Bizi pertsonala, laborala eta familiarra bateragarriak izateko behar diren establezimendu, errekurtsio eta zerbitzu soziokomunitarioak martxan jartzea. (udal mailako izaera du).*
- k) Entitate publiko nahiz pribatuak, parte hartze bideak, erlazioen ezarpena, bakoitzaren funtzio eta helburuen arabera elkar lana egitea, Udal Herri mailan, emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko.*
- l) Sexu arrazoiengatik ematen diren diskriminazio eta bazterketa guztiak atzematea eta berauek deuseztatzeko neurriak jartzea.*
- m) Beste edozein funtzio, beti ere udalaren kompetentzien barruan sartzen bada.*

Horrez gain, lege beraren **10. Artikuluak** tokiko administrazioek berdintasun arloan dituzten **eginkizunak** zehazten dira:

- a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen-eta ebaluazio-mekanismoak ere.*
- b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.*
- c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.*
- d) Bakoitzak bere administrazioko sailei eta beren mendeandakuen gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.*
- e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.*
- f) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.*
- g) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezten proposamenak eta sustapen-lana egitea.*
- h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek erroitik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.*

i) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetzaz izatea.

l) Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.

✓ **EAEko emakumeen eta gizonen VII. Berdintasun Plana**

Gaur egun Berdintasun Plan bat egiteko kontuan izan beharreko beste erreferentzia nagusia EAEko emakumeen eta gizonen VII. Berdintasun Plana da.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak 4 esku-hartze eremu ditu: “Gobernu Ona” (erakunde-aldaketarako edota barne funtzionamendurako erronkak, administrazio publikoetan) eta herritarren esku-hartzerako 3 ardatz nagusiak (izaera sozialeko erronkak).

ZER DA ZER?

Gobernu ona (Udal antolaketa berdinzalea): Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren txertatzea legitimatzeaz, aitortzeaz eta bultzatzeaz arduratzen da. Horretarako, gizarte osorako eredugarria izateaz gainera, Gobernu Onean finkatuta uzten dira gobernu-jarraibideak, aurrekontu-izendapenak, erakunde akordioak, kudeaketa gardeneko prozedurak eta zaintza-sistemak.

Emakumeen ahalduntzea: Emakumeen eta neskatilen ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa babestea eta sustatzea. Ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko eraldaketa sozialerako.

Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea (ingurune sozioekonomikoa): Eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzeko, eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkorrago eta berdinzaleago bat lortzen laguntzeko.

Indarkeria matxistarik gabeko herria: Sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa, arreta, berronertzea eta erakundeen arteko koordinazioa. Ardatz honek arreta jartzen du, batetik, prebentziora, eta, bestetik, bizirik jarraitzen duten biktimei arreta integrala ematean (erabat oneratzen diren arte).

3- LAN PROZEDURA

Aipatutako helburuak lortzeko, hainbat fasetan egituratutako lan prozedura jarraitu da, lehenago aipatutako lege oinarriak kontuan hartuta, eta Emakunderen VII. Berdintasun Plana ardatz harturik.

1. fasea: Talde sustatzailea osatu, lan tresnak diseinatu eta planaren egitura zehaztu
2. fasea: I. Planaren ebaluazioan jasotako informazioa aztertu, kontrastatu (talde sustatzailearekin, teknikariek, ordezkari politikoekin eta herritarrekin) eta interpretatu
3. fasea: Berdintasun planaren I. zirriborroa egin eta kontrastatu (talde sustatzailearekin, herritarrekin eta teknikariek)
4. fasea: II. Zirriborroa egin eta kontrastatu (talde sustatzailearekin, teknikariek eta politikariek)
5. fasea: III. Zirriborroa Emakundera bidali eta hauen iradokizunak Planean txertatu. Audientzia publikoa
6. fasea: Debako II. Berdintasun Plana onartu

1. Fasea: Talde sustatzailea osatu, lan tresnak diseinatu eta planaren egitura zehaztu

Talde sustatzailea udaleko berdintasun teknikariak, arloko zinegotziak eta Daitekeko ordezkariak osatu dute. Funtzioak izan dira:

- Berdintasun plana egiteko ekintza guztiak koordinatzea.
- Arlo desberdinen partehartzea finkatzea.
- Herriko emakumeen partehartzea bermatzeko neurriak ezartzea.
- Lehentasunak finkatzea.
- Planean finkatutako ekintza eta helburu zehatz guztiak garatzea
- Emaitzak gizartera hedatzea.

2. Fasea: I. Planaren ebaluaziotik jasotako informazioa kontrastatu (talde eragilearekin, teknikariek, ordezkari politikoekin, hezkuntza eragileekin eta herritarrekin) eta interpretatu

Debako I. Berdintasun Plana 2011n amaitu zen arren, urteotan ez da ebaluatu Plan horren betetze-maila. 2019.urtean, ebaluazio prozesu hori gauzatzea erabaki da, II. Berdintasun Plana sortzeko abiapuntua izateko. Horrela, ezagutu da urte horietan identifikatutako beharrei zein mailatako erantzuna eman zaien. Informazio hori talde eragilearekin, Udal teknikariek, ordezkari politikoekin, hezkuntza eragileekin eta herritarrekin kontrastatu da.

3. Fasea: Berdintasun Planaren I. zirriborroa egin eta kontrastatu (talde sustatzailearekin, herritarrekin, teknikariek)

Debako I. Berdintasun Planaren ebaluazio-txostena eta bigarren faseko bileretan jasotako informazioa kontuan harturik, II. Berdintasun Planaren I. zirriborroa egin da. Lehenengo zirriborro hori talde sustatzailearekin kontrastatu da, ondoren teknikariek, emakume taldeekin eta herritarrekin batera kontrastatu ahal izateko.

Teknikariek gauzatutako bileretan, Planeko ekintza bakoitza noiz egingo den eta arduraduna nor izango den zehaztu da. Helburu eta ekintza bakoitza ebaluatzeko erabiliko diren adierazleak ere kontrastatu dira. Hainbat ekintza gauzatzeko beharrezko aurrekontua ere finkatu da, baina ekintza gehienetan zailtasunak egon dira kuantifikazioa egiteko, eta horregatik, lan hori urteko plangintzak egiterako garaian egin beharko da.

4. Fasea: II. Zirriborroa egin eta kontrastatu (talde sustatzailearekin, teknikariek eta politikariek)

Jasotako proposamenekin eta ezarritako lehentasunekin II. zirriborroa eratu da. Talde eragilearekin bilera bat burutu da kontrasterako, eta teknikariei korreo elektroniko bidez helarazi zaie dokumentua, azken zuzenketak proposatzeko aukera emanaz.

Ordezkarik politikoei ere e-mailez bidali zaie zirriborroa, eta ondoren lan-saio bat egin da eurekin, Planaren funtzionamenduaren inguruko oinarrizko formazioa jaso dezaten, eta euren ekarpenak txostenean txertatzeko aukera izan dezaten.

5. Fasea: III. zirriborroa egin. Emakundera bidali eta hauen iradokizunak Planean txertatu. Audentzia publikoa.

Lehen bi faseetako ekarpenekin aldaketak eginda, III. Zirriborroa egin eta Emakundera bidali da teknikarien onspena eta iradokizunak jaso ahal izateko. Denbora tarte horretan Debako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Plana herritarren eskura egongo da edozein ekarpen jaso ahal izateko.

6. Fasea: Debako II. Berdintasun Plana onartu.

Udal plenoan Debako Emakumeen eta gizonen arteko II. Berdintasun Plana onartu beharko da.

Parte hartzea

Planaren eraketa prozesuan, lehenago azaldu bezala, ezinbestekoa izan da udal teknikarien, ordezkari politikoen eta herritarren parte hartzea. Bereziki kontuan izan dira herriko emakume taldeen eta talde feministaren ekarpenak. Horiekin koordinatuta, emakumeentzat, emakumeekin kontatu gabe gauzak antolatzea ekidin nahi izan da.

Guztira 30 pertsonak hartu dute parte (18 emakumek eta 12 gizonak). Horietatik 10 udaleko teknikariak izan dira, 9 ordezkari politikoak eta 11 gizarte eragileetako eta emakume taldeetako ordezkariak.

TALDEA	AZPI-TALDEA	Partaide kopurua	
		Emakume	Gizon
UDALEKO ORDEZKARIAK	Idazkaritza		
	Harrera bulegoa	1	
	Kontuhartzaitza		1
	Kirola		3
	Euskara eta hezkuntza	1	
	Kultura		1
	Hirigintza		
	Berdintasuna	1	
	Gizarte zerbitzuak	1	
	Ingurumena	1	
GIZARTE ERAGILEAK	Talde feminista	3	
	Emakume migranteen elkarteak	2	
	Emakumeen pala taldea	2	
	Herritarren bilera irekia		1
	Ikastetxeak	1	2
UDALEKO ORDEZKARI POLITIKOAK		5	4
PARTE HARTZAILEAK GUZTIRA		18	12

4-DEBAKO I. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOA ETA KONTRASTEAK

Aurrerago aipatu den bezala, II. Berdintasun Plana sortzeko abiapuntua izan da jakitea I. Berdintasun Planaren identifikatuta zeuden beharrei zein mailatako erantzuna eman zaien. Horrez gain, 2011-2019. urteetan Deban berdintasun Planik egon ez izanak berdintasun politiken garapenean izan duen eragina ere jaso nahi izan da. Honako ondorio hauek atera dira:

BERDINTASUN PLANAREN JARRAIPENA

Berdintasun Planari ez zaio jarraipenik egin, aurretik esanda bezala, Planaren indarraldian Udalak zeukan Berdintasun Zerbitzua ez zelako nahikoa funtzio hori bete ahal izateko. Horregatik, nahiz eta Plana onartu zenean zabalpena egin zen, Udaleko arlo bakoitzak ez zuen barneratu urtean urteko plangintzak egiteko beharra. Ondorioz, urteotan zehar ekintza batzuk egin dira berdintasuna landu eta sustatzeko, baina ekintza horiek ez dira sistematizatu eta batzuetan helburua guztiz garbi eduki gabe gauzatu dira edo garapen mugatua eman zaie.

Gainera, kontuan izan behar da Debako I. Berdintasun Plana 2011n amaitu zela, eta 2019. urtera arte ez dela martxan jarri Plan hori ebaluatu eta II. Plana diseinatzeko prozesua. Garrantzitsua da aipatzea 2011. urtean, Berdintasun arloaren aurrekontua erdira murriztu zela aurreko urtekoarekin alderatuz, eta 2016. urtera arte ez zuela igoerarik izan. Horregatik, uler daiteke urte horietan zehar Debako Udalak ez duela berdintasun politiken inguruko lan jarraitua egin.

2016. urtetik aurrera, berriz ere berdintasun politikei bultzada emateko nahia erakutsi du Udalak. Ordutik, urtean-urtean aurrekontuak igotzen jarraitu du, eta 2019an I. Berdintasun Planaren ebaluazioa egin eta II. Plana egiteko prozesua martxan jarri du.

BERDINTASUN ARLOA

Orokorrean, Berdintasun Teknikariak Udal arloetako arduradunekin izandako harremana murrizta izan da. Arduradunek zalantzak dituztenean aholkularitza eskatu ahal diotela ikusten dute, baina ez da komunikazio eta koordinazio bide jarraiturik ezarri. Gauzak horrela, Berdintasun arloak zailtasun handiak ditu Udal mailan zeharlerrokotasuna txertatzeko.

Esanda bezala, 2016. urtetik Udalak berdintasun politikak garatzeko duen konpromisoa areagotu egin da, eta nabarmendu behar da 2019. urtean Berdintasuna eta Politika Feministak komisioa sortu dela (ordurarte Gizarte Zerbitzuen Saileko azpi-komisio bat zen). Gainera, Berdintasun sailaren arduraduna

izango den Udal teknikari baten kontratazioa egiteko asmoa adierazi du, azken urteotan bezala zerbitzua azpikontratatzeari utziz.

BERDINTASUN POLITIKEK IZAN DUTEN GARAPENA, ARLOZ ARLO

ZERBITZU OROKORRAK

LORPENAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Herrira begira ekintzak egin dira. Martxoak 8, azaroak 25, ekimen puntualak, etab. <input type="checkbox"/> Ikastaroak eman dira bai politikari eta bai teknikariei <input type="checkbox"/> Azken hiru urteetan berdintasun zerbitzuaren aurrekontua igo da, eta teknikaria kontratatzeke asmoa agertu da. <input type="checkbox"/> Kirol eta kultur elkarteei diru-laguntzak emateko oinarrietan berdintasun klausula txertatzen hasi dira. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Berdintasun teknikariaren kontratazioa gauzatu <input type="checkbox"/> Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista egiteko gomendioen eskuliburu bat sortzea, eta honen gaineko alkatetza dekretu bat onartu <input type="checkbox"/> Datuak sexuaren arabera jasotzeko sistemak ezartzea <input type="checkbox"/> Ikastaro espezifikoak eskaini arlo bakoitzean genero ikuspegia txertatzeko <input type="checkbox"/> Langileen kontziliazio neurrien gaineko datuak jaso, eta hala dagokionean hobekuntza neurriak proposatu <input type="checkbox"/> Kontziliazioa errazte aldera, lan-orduz kanpoko bilerak kontabilizatzeko eta konpentsatzeko prozedurak ezarri. <input type="checkbox"/> Langileen soldatetan generoak eragina duen aztertu <input type="checkbox"/> Kultur eta kirol elkarteei emandako diru-laguntzen memorietatik, jarraipena egin berdintasuna sustatzeko hartu diren neurrien inguruan. <input type="checkbox"/> Jazarpen sexista eta sexu jazarpenei aurre egiteko protokoloa eratu.

GIZARTE ZERBITZUAK

LORPENAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Tratu txarrei eta sexu erasoei aurre egiteko udal protokoloa dago. <input type="checkbox"/> Udal Tokiko Enplegu Planak emakumeen enpleguratzean lagundu du 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Indarkeria matxistaren biktimak artatzeko formazio espezifiko eskaini (tokiko protokoloaren ingurukoa barne). <input type="checkbox"/> Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzeko tresnak sortu <input type="checkbox"/> Herritarren beharren azterketak genero ikuspegiarekin egin <input type="checkbox"/> Ginekologia zerbitzua herriko emakume guztiengana iristeko neurriak hartu

BERDINTASUNA

LORPENAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Azaroak 25, martxoak 8, maiatzak 17 eta ekainak 28 bezalako ekimenak indartu dira <input type="checkbox"/> Jaietan eraso matxisten prebentziorako ekintzak antolatu dira. <input type="checkbox"/> <i>Berdintasuna eta Politika Feministak</i> batzordea sortu da. <input type="checkbox"/> Dunamis elkartearekin batera, emakumeentzat ikastaroak antolatu izan dira. <input type="checkbox"/> Liburutegia eta berdintasun sailaren artean koordinazio ona eratu da. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Berdintasun arloari beharrezko baliabide eta errekurtsioak eman, II. Berdintasun Plana gauzatu ahal izateko. <input type="checkbox"/> Arloen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetu <input type="checkbox"/> II. berdintasun planaren jarraipenerako mekanismoak ezarri <input type="checkbox"/> Udal mailan berdintasuna zeharlerrokotasunez txertatzeko gakoak eskaini gainerako arloei. <input type="checkbox"/> Genero ikuspegia txertatu kultur, kirol eta aisialdi jardueretan <input type="checkbox"/> Talde feministarekin eta herriko emakumeen elkarteekin harremana eta elkarlana indartu <input type="checkbox"/> Zaintza lanetan aritzen diren emakume migranteen egoera aztertu.

KULTURA- LIBURUTEGIA

LORPENAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Umeen ipuin, liburu eta film moreen gida dago eginda <input type="checkbox"/> Liburutegiko teknikarien eta berdintasun sailaren arteko koordinazio eta komunikazioa onak dira <input type="checkbox"/> Kultur ekitaldietan, emakumeen parte hartzea handia da. 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Feminismoarekin zerikusia duten liburutegiko ipuin, liburu eta film-ak identifikatu (gometx moreen bidez, gida berezietan bilduz, ...) <input type="checkbox"/> Kultur ekimenak eta jaietako programazioa genero ikuspegitik aztertu <input type="checkbox"/> Emakumeek egindako kultur ekimenak hedatu eta berdintasuna sustatzen duten jarduerak antolatu

KIROLA

LORPENAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Emakume askok parte hartzen dute kiroldegiko eskaintzan. Adin batetik gorako emakumeen presentzia nabarmena da <input type="checkbox"/> Eguneroko harremanaren bitartez, herritarren behar eta gustuak antzeman eta horren araberako eskaintza egiten saiatzen dira <input type="checkbox"/> Institutuan ikerketa bat egin zen ezagutzeko DBHko ikasleek zenbat eta zein kirol egiten duten <input type="checkbox"/> Gazte kirola programan parte hartzen dutenen artean (12-18 urte), neska eta mutilen kopuruak berdinak dira 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Estereotipo gabeko kirola sustatzeko kanpainak egin <input type="checkbox"/> Neskak gutxiengo diren kirolean, Aldundiak edo beste erakunde batzuk sustatzen dituzten programak Deban antolatzen jarraitu (adib.: emakumea surflari...) <input type="checkbox"/> Kirol munduan erreferente diren emakumeak herrira ekarri <input type="checkbox"/> Eskola kiroleko azken urteetan nesken parte hartzea ez jaisteko neurriak hartu <input type="checkbox"/> Instalazioen azterketa egitea genero ikuspegitik. Neska eta mutilen erabileran desberdintasunak saihesteko neurriak hartu

HIRIGINTZA eta INGURUMENA

LORPENAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Genero ikuspegia kontuan hartzen duen Debako hirigintza diagnostikoa gin da <input type="checkbox"/> Kale izendegian emakumearen presentzia ahula dela kontzientzia dago <input type="checkbox"/> Herriaren irisgarritasuna aztertu eta hobetzeko pausoak eman dira. <input type="checkbox"/> Berdegune handi bat dago 	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Aipatutako hirigintza diagnostikoan azaldutako ahulguneei irtenbidea eman <input type="checkbox"/> Herriko guneak zaintza lanetarako lagungarriak izan daitezzen egokitu <input type="checkbox"/> Berdegunearen erabilera aztertu eta erabilgarritasuna hobetzeko neurriak hartu. <input type="checkbox"/> Debako landa eremuko emakumeen beharrak ezagutu <input type="checkbox"/> 2009an egindako hirigintza genero ikuspegitik analisisa eguneratu eta behar berriak ondorioztatu.

LANA

LORPENAK	HOBETU BEHARREKOAK
<input type="checkbox"/> Saiakera egin da berdintasuna sustatzeko kanpainak egiteko herriko enpresekin.	<input type="checkbox"/> II. Berdintasun Planean enpleguaren inguruan egongo diren ekintzetaz Udal mailan nor arduratuko den erabaki. <input type="checkbox"/> Berdintasun arloarekin batera, zaintza lanetan aritzen diren emakume migranteen egoera aztertu, eta hobetzeko proposamenak egin. <input type="checkbox"/> Berdintasun arloarekin batera, erantzukidetasuna sustatzeko kanpainak egin. <input type="checkbox"/> Lan-orientazio ez sexista egiteko bailarako heziketa zikloetako zentroekin koordinazioa abiatu.

HEZKUNTZA

LORPENAK	HOBETU BEHARREKOAK
<input type="checkbox"/> Ikastetxeetan hezkidetzak lantzeko ekimenak egiten dira. <input type="checkbox"/> Sistematikoki egiten dira saioak LH 5etik DBH 2ra bitarteko ikasleekin. <input type="checkbox"/> Udalekutako begiraleei hezkidetzarekin lotutako formazioa eskaini zaie azken urteetan. <input type="checkbox"/> Gaztelekua eta institutuaren artean elkarlana dago.	<input type="checkbox"/> Udalak herrian hezkidetzak bultzatzeko dituen eginkizunak finkatu eta bete. <input type="checkbox"/> Hezkidetzak mahai bat sortu herriko hezkuntza eragileekin koordinazioa egiteko. <input type="checkbox"/> Teknologia berrien bitartez gauzatutako jazarpenen inguruko formazioa eskaini ikasle, guraso eta profesionaleri.

BERDINTASUN POLITIKAK HERRIKO ERAGILEEN IKUSPEGITIK**IKASTETXEEN IKUSPUNTUA**

Luzaro ikastetxean eta Mendata institutuan elkarrizketak egiten dira. Luzaro ikastetxeari dagokionean, emakume bat elkarrizketatu da (zuzendaria), eta Mendata institutuan, bi gizonetako (zuzendaria eta orientatzailea).

Elkarrizketetatik aterata den ondorio nagusia izan da ikastetxeak euren kabuz egiten hasi direla hezkidetzarekin lotutako lanketa, Udalaren partetik babesik zein jarraipenik gabe. Ikastetxeek azpimarratu dute bertako profesionalak gaiarekiko duten sentsibilizazioari esker aurrera eraman direla hainbat ekimen. Baliabide eta tresnak eskuratzeko garaian, Berritzegune edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila aipatu dituzte.

Beraz, identifikatutako behar nagusia da Debako Udalak bere gain hartu behar duela hezkuntza eragileekin hezkidetzak lantzeko duen ardura.

EMAKUME TALDEEN ETA TALDE FEMINISTAREN IKUSPUNTUA

Debako talde feministak, Dunamis emakume migranteen elkarteak, eta Irule emakumeen pala elkarteak hartu dute parte prozesuan. Hainbat gairen inguruan hausnartu da eurekin:

- Ikastetxeetan Hezkidetzak programa osatu bat eskaintzeko beharra, orain egiten diren saio solteei koherentzia eta lanketa sakonagoa emango diena.
- Emakumeen partehartze soziala bultzatzeko, zaintzarako espazio berriak sortu beharra.
- Zaintza eta garbiketa lanetan aritzen diren emakumeen egoera aztertzeko beharra. Gehienak migranteak dira, eta integrazio aldetik zailtasunak dituzte. Gizarteak zein Udalak babesten dituztela sentitu nahi dute.
- Herriko emakumeen errealitateak eta egoerak ezagutzeko bekak ateratzea proposatuko liokete Udalari.
- Emakumeen artean ekintzailatasuna bultzatzeko beharra, Emekin programa baliatuz.
- Kirol arloari dagokionean, "bigarren mailan" egoten jarraitzen du emakumeak talde mixtoetan: mutilen ekipazio zaharrak ematen zaizkie, entrenatzaileak lortzeko zailtasunak dituzte, instalazioetan ordutegi txarrenak uzten dizkiete... Zuzendaritza taldeetan emakumeak sartzea sustatu beharra.
- Musikari dagokionean, taldeetan emakumeak sartzea edo emakumez osatutako taldeak eratzea bultzatu beharra.

HERRITARREN IRITZIA JASOTZEKO SAIO IREKIA

Herritarrei zuzendutako saio irekiera pertsona bakarra bertaratu da (gizonezko bat). Aipatu behar da gizonezko horrek kontzientzia maila handia erakutsi duela gaiarekiko, eta hainbat ekarpen eta proposamen egin dituela: emakumeak elkartzeko espazio baten beharra, zaintza lanetan aritzen diren emakume migranteen egoera aztertu beharra, Udal proiektuetan hainbat ikuspegitatik izango duten inpaktua aztertu beharra (generoa, osasuna...), eta argiteria eskasia herriko gune zehatzetan.

5-DEBAKO II. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA

Debako II. Berdintasun plana, Emakunderen VII. Berdintasun planean oinarriturik, lau lan-ildoren baitan egituratu da:



Aipatutako lan ildoen baitan, zenbait helburu planteatu dira, eta ekintza sorta bat helburu horiek aurrera eramanez ahal izateko. Honako hauek dira lan-ildo bakoitzaren barruan ezarri diren helburuak eta horiek gauzatzeko planteatu diren ekintzen proposamena:

GOBERNU ONA

1. HELBURUA: **Debako II. Berdintasun plana martxan jarri eta jarraipen mekanismoak aktibatzea**
2. HELBURUA: **Udaleko Berdintasun arloa indartzea**
3. HELBURUA: **Formazioa eta sentsibilizazioa**
4. HELBURUA: **Berdintasun ikuspegia eguneroko lan moldeetan txertatzea**
5. HELBURUA: **Udaleko parte-hartze egituretan parekidetasuna bermatzeko neurriak ezartzea**
6. HELBURUA: **Udalan kontziliazio irizpideak txertatzea**
7. HELBURUA: **Berdintasun printzipioa udaleko araudian txertatzea**

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

8. HELBURUA: **Emakumeen ahalduntzerako ekimenak bultzatzea**
9. HELBURUA: **Emakumeen autonomia garatzeko ekimenak bultzatzea**
10. HELBURUA: **Herritarren sentsibilizazioa areagotzea**

EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA

11. HELBURUA: **Debako enpresa, merkatari eta nekazariekin sentsibilizazio kanpainak burutzea**
12. HELBURUA: **Erantzukidetasuna areagotzea herrian**
13. HELBURUA: **Berdintasunean oinarritutako heziketa bultzatzea**

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

14. HELBURUA: **Emakumeenganako edozein indarkeria motari aurre egiteko mekanismoak ezartzea**
15. HELBURUA: **Debako emakumeen segurtasuna indartzeko ekintzak martxan jartzea**

ARDATZA: GOBERNU ONA

Helburuak	Ekintzak
<p>1. Debako II. Berdintasun plana martxan jarri eta jarraipen mekanismoak aktibatzea</p>	<p>G.1.1. Urtero arlo bakoitzak berdintasun planean oinarrituta burutuko dituen ekintzak biltzen dituen plan operatiboa eratzea, dagokion aurrekontuarekin.</p> <p>G.1.2. Berdintasun teknikaria eta gainerako arloen arteko koordinazio mekanismoak finkatzea.</p> <p>G.1.3. Berdintasun planaren hedapena</p>
<p>2. Udaleko Berdintasun arloa indartzea</p>	<p>G.2.1. Berdintasun arloa beharrezko baliabide ekonomiko eta pertsonalaz hornitzea.</p> <p>G.2.2. <i>Berdintasuna eta Politika Feministak</i> batzordea kontsolidatzea.</p>
<p>3. Formazioa eta sentsibilizazioa</p>	<p>G.3.1. Urtero Udaleko arduradun politiko eta teknikoentzako prestakuntza zehatza antolatzea, genero-ikuspegia txertatu ahal izateko beren jardunetan.</p> <p>G.3.2. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari eta arlo bakoitzarekin lotutako politika publikoei buruzko jardunaldietara eta mintegietara joatera bultzatzea pertsonal politikoa eta teknikoa.</p> <p>G.3.3 Emakume politikariak Basqueskolako formazio eta zerbitzuetara bideratzea.</p>
<p>4. Berdintasun ikuspegia eguneroko lan moldeetan txertatzea</p>	<p>G.4.1. Aplikazio informatikoetan, <i>Esan Udalari</i> aplikazioan, estatistiketan, formularioetan, gidetan, dokumentuetan eta bestelako edozein tresnetan datuak sexuaren arabera bereiztea (emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea beteaz).</p> <p>G.4.2. Udalaren pertsonalarentzako berdintasunezko hizkeraren eta irudien erabilerari buruzko Gomendioen Eskuliburua egitea eta argitaratzea.</p>

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

	<p>G.4.3. Udaletik antolatzen diren herrira begirako programazio guztietan (jaiak, kultur ekitaldiak, kirol eskaintza...) genero ikuspegia txertatzea.</p> <p>G.4.4. Udaleko lan-postuen eta soldaten gaineko azterketa egitea, eta arrakalarik badago, neurri zuzentzaileak proposatzea.</p>
<p>5. Udaleko parte-hartze egituretan parekidetasuna bermatzeko neurriak ezartzea</p>	<p>G.5.1. Udaleko erabaki organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua (%40-%60) bermatzeko neurriak ezartzea.</p> <p>G.5.2. Parte-hartze prozesuen gaineko datuak jasotzea sexuaren arabera berezituta.</p> <p>G.5.3. Udalak antolaturiko gizarte parte hartzerako ordutegiak egokitzea.</p>
<p>6. Udalean kontziliazio irizpideak txertatzea</p>	<p>G.6.1. Udal langileek hartzen dituzten bateratze-neurriekin erregistro bat osatzea</p> <p>G.6.2. Amatasun eta aitatasun lizentzien, senideak zaintzeko eszedentzien, etab. erregulazioa ezagutaraztea udaleko langileei.</p> <p>G.6.3. Lan-orduz kanpo egiten diren bilera-orduak antolatu eta kontabilizatzeko sistema ezarri.</p>
<p>7. Berdintasun printzipioa udaleko araudian txertatzea</p>	<p>G.7.1. Diru-laguntzetan dauden berdintasun klausulak garatzen jarraitzea</p> <p>G.7.2. Diru-laguntzetako berdintasun klausulen jarraipena egiteko mekanismoak eratzea</p> <p>G.7.3. Sail bakoitzeko kontratazioetan berdintasun irizpideak txertatzen lagunduko dituzten baliabideak sortu eta kontratazioetan berdintasun irizpideak txertatzea (kontratutako enpresek berdintasun planak martxan dituztela ziurtatuz ...).</p> <p>G.7.4. Kale, plaza eta abarrerako izenak aukeratzeko prozesuei buruzko araudia sortzea emakumeen presentzia areagotzeko.</p>

ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	
Helburuak	Ekintzak
8. Emakumeen ahalduntzerako ekimenak bultzatzea	<p>A.8.1. Ahalduntze ikastaroak martxan jartzea (neska gazteentzat barne)</p> <p>A.8.2. Gizonei zuzendutako sentsibilizazio eta “desahalduntze” ikastaroak antolatzea.</p> <p>A.8.3. Beldur barik bezalako programak indartzea.</p> <p>A.8.4. Zaintzan eta garbiketa lanetan aritzen diren emakumeen egoera hobetzeko aukerak aztertu, eredu bezala Gipuzkoako elkarte eta ekimenak ezagutzuz.</p> <p>A.8.5. Eskola kirolaren bereizketan eragina duten genero-faktoreei buruzko ikerketa egitea.</p> <p>A.8.6. Federaturiko kirolaren bereizketan eragina duten genero-faktoreei buruzko ikerketa egitea.</p> <p>A.8.7. Klubetako zuzendariak generoaren arloan gaitzea.</p> <p>A.8.8. Emakume gutxi dauden kiroletarako ikastaro monografikoak garatzea.</p> <p>A.8.9. Kirol klubetako zuzendaritzan emakumeen presentzia handitzeko aurrera pausoak eman.</p> <p>A.8.10. Frontoiko ordutegiak berrikusi, prozesuan kirol elkarte guztiak kontuan izanda.</p> <p>A.8.11 Debako errealitateak eta beharrak aztertzeke ikerketa bekak sortu Udaleko teknikarien artean gaia adostuta.</p>
9. Emakumeen autonomia garatzeko ekimenak bultzatzea	A.9.1. Auzoetako beharrak aztertu eta auzo bakoitzeko errealitatera egokitutako ekimenak garatzea, emakumeen autonomia eta jabekuntzari dagokionean.
10. Herritarren sentsibilizazioa areagotzea	<p>A.10.1. Berdintasunean oinarritutako arte eta kultur lehiaketak antolatzea.</p> <p>A.10.2. Martxoak 8, maiatzak 17, ekainak 28 edo azaroak 25 bezalako kanpainak indartzea.</p>

	<p>A.10.3. Helduentzat liburu eta film moreen gida egitea.</p> <p>A.10.4. Debako emakume musikariei ikusgarritasuna eman (Adib.: bertsio gauarekin)</p>
--	---

ARDATZA: EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA		
Helburuak	Ekintzak	
11. Debako enpresa, merkatari eta nekazariekin sentsibilizazio kanpainak burutzea	<p>E.11.1. Berdintasuna sustatzeko ekintza eta kanpaina puntaletan Debegesa eta Debemenekin lankidetzan jarraitu.</p> <p>E.11.2. Emeki moduko proiektuen informazioa helarazi Debako emakume sustatzaileei enpresa proiektuak bultzatzeko.</p>	
12. Erantzunkidetasuna areagotzea herrian	<p>E.12.1. Herritarrek zaintzan eta etxeko lanak egiten emandako denboraren inguruko azterketa egitea eta ezagutaraztea</p> <p>E.12.2. Bateragarritasun diagnostikoan proposatutako neurriak ezartzea</p> <p>E.12.3. Sustatzea herrian jolas egiteko guneak, berdeguneak, korridore berdeak, sare berdeak, etab. Sortzea, herritarren iritziak entzunda.</p> <p>E.12.4. Familia erantzukizunak dituzten eta bakarrik dauden emakumeen beharrei erantzutea.</p>	
13. Berdintasunean oinarritutako heziketa bultzatzea	<p>E.13.1 Udaletik bultzatzea eta jarraipena egitea eremu formal eta ez formaleko pertsonal teknikoa trebatzearen inguruan (Adb.: musika eskola, etab.).</p> <p>E.13.2 Herriko eragileei begira antolatutako trebakuntza saioen inguruko planifikazioa eta estrategiak adostu (Adb.: ingurumena, euskara eta berdintasuna uztartzea).</p> <p>E.13.3 Hezkuntza kolektiboarekin batera, hezkuntzako proiektuak aztertu eta gazteei zuzendutako programak landu hezkidetzan aurrera pausuak ematen joateko.</p>	

ARDATZA: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK	
Helburuak	Ekintzak
14. Emakumeenganako edozein indarkeria motari aurre egiteko mekanismoak ezartzea	<p>I.14.1. Jazarpen sexuala eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa martxan jartzea.</p> <p>I.14.2. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko koordinaziorako protokoloaren jarraipenarekin jarraitu.</p> <p>I.14.3. Indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren inguruko formazioa eskaini mahai teknikoari eta informatu bestelako udal eragileei.</p> <p>I.14.4. Indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren ezarpen egokia ahalbidetu.</p> <p>I.14.5. Jaietako eraso matxisten prebentzio kanpainekin jarraitu.</p>
15. Debako emakumeen segurtasuna indartzeko ekintzak martxan jartzea	I.15.1 Puntu Beltzen Maparen jarraipena gauzatzea

Debako II. Berdintasun Plana

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	GOBERNU ONA					
HELBURUA	1. Helburua: Debako II. Berdintasun plana martxan jarri eta jarraipen mekanismoak aktibatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
G.1.1. Urtero arlo bakoitzak berdintasun planean oinarrituta burutuko dituen ekintzak biltzen dituen plan operatiboa eratzea, dagokion aurrekontuarekin.	Arlo guztiak Laguntzailea: Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	-Urteko plan operatiboa jasotzen duen dokumentua. -Berdintasun gaietara arlo bakoitzetik bideratutako aurrekontuaren zenbatekoa.
G.1.2. Berdintasun teknikaria eta gainerako arloen arteko koordinazio mekanismoak finkatzea.	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	-Urtean arlo bakoitzarekin burututako koordinazio bileren zenbatekoa. - Berdintasun arloa eta gainerako arloen artean eratutako komunikazio bideak.
G.1.3. Berdintasun planaren hedapena	Berdintasuna Laguntzaileak: Arlo guztiak	✓	✓	✓	✓	-Berdintasun planaren hedapenerako erabilitako bitartekoak -Informazioa udalean eta herrian hedatzeko eginiko ekintzak

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	GOBERNU ONA					
HELBURUA	2. helburua: Udaleko Berdintasun arloa indartzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
G.2.1. Berdintasun arloa beharrezko baliabide ekonomiko eta pertsonalaz hornitzea.	Zerbitzu orokorrak					-Berdintasun arloari esleitutako aurrekontuaren zenbateko osoa, eta portzentuala. -Berdintasun arloa kudeatzera bideratutako baliabide pertsonalak, haien ordu dedikazioa, formazioa eta eginkizunen arabera.
	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	
G.2.2. <i>Berdintasuna eta Politika Feministak</i> batzordea kontsolidatzea.	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	-Batzordeko bileren zenbatekoa.

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	GOBERNU ONA					
HELBURUA	3. helburua: Formazioa eta sentsibilizazioa					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
G.3.1. Urtero Udaleko arduradun politiko eta teknikoentzako prestakuntza zehatza antolatzea, genero-ikuspegia txertatu ahal izateko beren jardunetan.	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	-Urteko formazio planaren exekuzio maila: burututako ekintzak, iraupena, parte hartzaile kopurua.
	Laguntzaileak: Arlo guztiak	1.200€	1.200€	1.200€	1.200€	-Ikastaro bakoitzaren helburuen betetze maila.
G.3.2. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari eta arlo bakoitzarekin lotutako politika publikoei buruzko jardunaldietara eta mintegietara joatera bultzatzea pertsonal politikoa eta teknikoa.	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	-Berdintasuneko ikastaroetara joan diren udal langile eta politikarien zenbatekoak.
	Laguntzaileak: Arduradun politikoak					-Gizonduz ekimenetan parte hartu duten gizonen kopurua.
G.3.3 Emakume politikariak Basqueskolako formazio eta zerbitzuetara bideratzea.	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	- Udal politikariei egindako deialdi kopurua
						- Parte hartze kopurua

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	GOBERNU ONA					
HELBURUA	4. helburua: Berdintasun ikuspegia eguneroko lan moldeetan txertatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK/ HELBURUAK
		2020	2021	2022	2023	
G.4.1. Aplikazio informatikoetan, <i>Esan Udaleri</i> aplikazioan, estatistiketan, formularioetan, gidetan, dokumentuetan eta bestelako edozein tresnetan datuak sexuaren arabera bereiztea (emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea beteaz).	Arlo guztiak	✓	✓	✓	✓	<p>HELBURUA:</p> <p>-%90a, sexuaren arabera bereizituta egotea.</p> <p>ADIERAZLEAK:</p> <p>-Datuak sexuaren arabera jasotzeko ezarritako sistema kopurua.</p>
G.4.2. Udalaren pertsonalarentzako berdintasunezko hizkeraren eta irudien erabilerari buruzko Gomendioen Eskuliburua egitea eta argitaratzea.	Berdintasuna		✓			Gomendioen eskuliburua egin izana.
G.4.3. Udaletik antolatzen diren herrira begirako programazio guztietan (jaiak, kultur ekitaldiak, kirol eskaintza...) genero ikuspegia txertatzea.	Arlo guztiak	✓	✓	✓	✓	- Berdintasun teknikariarekin programazioak aztertzeko egindako bilera kopurua.
G.4.4. Udaleko lan-postuen eta soldaten gaineko azterketa egitea, eta arrakalarik badago, neurri zuzentzaileak proposatzea.	Idazkaritza	✓	✓	✓	✓	<p>-Udaleko soldaten gaineko azterketa.</p> <p>-Proposatutako eta aurrera eramandako neurri zuzentzaileak.</p>

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	GOBERNU ONA					
HELBURUA	5. helburua: Udaleko parte-hartze egituretan parekidetasuna bermatzeko neurriak ezartzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
G.5.1. Udaleko erabaki organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua (%40-%60) bermatzeko neurriak ezartzea.	Idazkaritza Arlo guztiak	✓	✓	✓	✓	-Arlo desberdinetako erabaki organoetako emakume eta gizonezkoen kopurua. -Eratutako epaimahaien emakume eta gizonezkoen kopurua.
G.5.2. Parte-hartze prozesuen gaineko datuak jasotzea sexuaren arabera berezita.	Arlo guztiak	✓	✓	✓	✓	-Arlo bakoitzetik sustatutako parte hartze prozesuen zenbatekoa, eta parte hartzaileen datuak sexuaren arabera berezita.
G.5.3. Udalak antolaturiko gizarte parte hartzerako ordutegiak egokitzea.	Arlo guztiak	✓	✓	✓	✓	Arlo bakoitzak parte hartzeko bilerak antolatzean ezarri dituen irizpideak

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	GOBERNU ONA					
HELBURUA	6. helburua: Udalean kontziliazio irizpideak txertatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
G.6.1. Udal langileek hartzen dituzten bateratze-neurriekin erregistro bat osatzea	Idazkaritza		✓			- Erregistorako sortutako tresnak
G.6.2. Amatasun eta aitatasun lizentzien, senideak zaintzeko eszedentzien, etab. erregulazioa ezagutaraztea udaleko langileei.	Berdintasuna			✓		- Helarazitako neurri kopurua.
G.6.3. Lan-orduz kanpo egiten diren bilera-orduak antolatu eta kontabilizatzeko sistema ezarri	Idazkaritza			✓		- Ezarritako irizpideak

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	GOBERNU ONA					
HELBURUA	7. helburua: Berdintasun printzipioa udaleko araudian txertatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK/ HELBURUAK
		2020	2021	2022	2023	
G.7.1. Diru-laguntzetan dauden berdintasun klausulak garatzen jarraitzea	Idazkaritza	✓	✓	✓	✓	HELBURUA: -2020tik aurrera berdintasun klausulen irizpideen arabera, %100-a txertatua izatea udal diru-laguntzetan. ADIERAZLEAK -Berdintasun klausulak diru-laguntzetan txertatzeko irizpide orokorrak. -Berdintasun klausulak dituzten diru laguntza kopurua
	Arlo guztiak					
G.7.2. Diru-laguntzetako berdintasun klausulen jarraipena egiteko mekanismoak eratzea	Idazkaritza	✓	✓	✓	✓	Urteko ekintzen jarraipena egiteko sortutako tresnak
	Arlo guztiak					

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA		GOBERNU ONA				
HELBURUA		7. helburua: Berdintasun printzipioa udaleko araudian txertatzea				
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK/ HELBURUAK
		2020	2021	2022	2023	
G.7.3. Sail bakoitzeko kontratazioetan berdintasun irizpideak txertatzen lagunduko dituzten baliabideak sortu eta kontratazioetan berdintasun irizpideak txertatzea (kontratutako enpresek berdintasun planak martxan dituztela ziurtatuz ...).	Idazkaritza			✓	✓	HELBURUA: -2020tik aurrera berdintasun klausulen irizpideen arabera, %100-a txertatua izatea udal azpikontrazioetan.. ADIERAZLEAK -Berdintasun klausulak udal azpikontrazioetan txertatzeko irizpide orokorrak. -Berdintasun klausulak dituzten kontratu kopurua - Berdintasun plana duten kontratatutako enpresen kopurua
	Arlo guztiak					
G.7.4. Kale, plaza eta abarrerako izenak aukeratzeko prozesuei buruzko araudia sortzea emakumeen presentzia areagotzeko.	Idazkaritza			✓		-Araudia
	Hirigintza					

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA					
HELBURUA	8. helburua: Emakumeen ahalduntzerako ekimenak bultzatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/ AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
A.8.1. Ahalduntze ikastaroak martxan jartzea (neska gazteentzat barne).	Berdintasuna	✓ 2.500 €	✓ 2.500 €	✓ 2.500 €	✓ 2.500 €	-Eskainitako ahalduntze ikastaroak. - Ikastaro bakoitzaren parte hartzaile kopurua. - Ikastaro bakoitzaren helburuen betetze maila.
A.8.2. Gizonei zuzendutako sentsibilizazio eta "desahalduntze" ikastaroak antolatzea.	Berdintasuna		✓ 300€		✓ 300€	
A.8.3. Beldur barik bezalako programak indartzea.	Gazteria Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	-Programan parte hartze maila - Irismena
A.8.4. Zaintzan eta garbiketa lanetan aritzen diren emakumeen egoera hobetzeko aukerak aztertu, eredu bezala Gipuzkoako elkarte eta ekimenak ezagutuz.	Berdintasuna Gizarte Zerbitzuak	✓	✓			-Azterketa gauzatzea - Dunamis elkartearen parte hartzea - Gipuzkoako elkarrekin izandako harremanak.

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA					
HELBURUA	8. helburua: Emakumeen ahaldunderako ekimenak bultzatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
A.8.5. Eskola kirolaren bereizketan eragina duten genero-faktoreei buruzko ikerketa egitea.	Kirola Laguntzailea: Berdintasuna	✓	✓			-Ikerketaren emaitzak
A.8.6. Federaturiko kirolaren bereizketan eragina duten genero-faktoreei buruzko ikerketa egitea.	Kirola Laguntzailea: Berdintasuna	✓	✓			-Ikerketaren emaitzak
A.8.7. Klubetako zuzendariak generoaren arloan gaitzea.	Berdintasuna Laguntzailea Kirola	✓	✓			-Burututako ikastaroak. - Parte hartzaile kopurua (sexuaren arabera).
A.8.8. Emakume gutxi dauden kiroletarako ikastaro monografikoak garatzea.	Kirola	✓	✓	✓	✓	-Monografikoak egitea.

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA					
HELBURUA	8. helburua: Emakumeen ahalduntzerako ekimenak bultzatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/ AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
A.8.9. Kirol klubetako zuzendaritzan emakumeen presentzia handitzeko aurrera pausoak eman.	Kirola			✓		<ul style="list-style-type: none"> - Kirol taldeen zuzendaritzarekin egindako bilera kopuruak. - Proposatutako eraldatze ekintza kopuruak.
A.8.10. Frontoiko ordutegiak berrikusi, prozesuan kirol elkarte guztiak kontuan izanda.	Kirola Laguntzailea Berdintasuna		✓			<ul style="list-style-type: none"> - Egindako bilera kopuruak. - Parte hartu duten taldeen zerrenda. - Irule elkarteak parte hartutako bilera kopurua
A.8.11. Debaiko errealitateak eta beharrak aztertzeke ikerketa bekak sortu Udaleko teknikarien artean gaia adostuta.	Arlo guztiak				✓	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako ikerketa dokumentua

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA					
HELBURUA	9. helburua: Emakumeen autonomia garatzeko ekimenak bultzatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
A.9.1. Auzoetako beharrak aztertu eta auzo bakoitzeko errealitatera egokitutako ekimenak garatzea, emakumeen autonomia eta jabekuntzari dagokionean.	Alkatetza		✓	✓	✓	-Auzoetako emakumeen beharren gaineko diagnostikoa. -Burututako ekimenak, mota - Parte hartzaile kopurua.

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA					
HELBURUA	10. helburua: Herritarren sentsibilizazioa areagotzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
A.10.1. Berdintasunean oinarritutako arte eta kultur lehiaketak antolatzea.	Kultura	✓	✓	✓	✓	-Burututako lehiaketa kopurua. - Parte hartu duen herritar kopurua.
A.10.2. Martxoak 8, maiatzak 17, ekainak 28 edo azaroak 25 bezalako kanpainak indartzea.	Berdintasuna	✓ 4.500€	✓ 4.500€	✓ 4.500€	✓ 4.500€	-Burututako ekimenak. - Parte hartzaile kopurua (sexuaren arabera).
A.10.3. Helduentzat liburu eta film ez sexisten gida egitea.	Liburutegia Berdintasuna	✓ 2000€				-Liburu gida. -Gidaren irismen maila.

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA					
HELBURUA	10. helburua: Herritarren sentsibilizazioa areagotzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
A.10.4. Debako emakume musikariei ikusgarritasuna eman (Adb: bertsio gauarekin)	Kultura		✓	✓	✓	-Debako musika taldeetako emakume kopurua. -Egindako ekimen kopurua.

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA					
HELBURUA	11. helburua: Debako enpresa, merkataria eta nekazariarekin sentsibilizazio kanpainak burutzeko					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA/ADIERAZLEAK				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
E.11.1. Berdintasuna sustatzeko ekintza eta kanpaina puntualetan Debegesa eta Debemenekin lankidetzan jarraitu.	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	-Burututako sentsibilizazio- Kanpainak. -Enpresa eta merkataria kolaboratzaile kopurua.
E.11.2. Emeki moduko proiektuen informazioa helarazi Debako emakume sustatzaileei enpresa proiektuak bultzatzeko.	Berdintasuna			✓		-Helarazitako informazio kopurua. - Proiektu berriak sortu dituzten emakume sustatzaile kopurua.

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA					
HELBURUA	12. helburua: Erantzunkidetasuna areagotzea herrian					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA/ADIERAZLEAK				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
E.12.1 Herritarrek zaintzan eta etxeke lanak egiten emandako denboraren inguruko azterketa egitea eta ezagutaraztea	Berdintasuna				✓	-Gauzatutako azterketa
	Gizarte Zerbitzuak					
E.12.2 Bateragarritasun diagnostikoan proposatutako neurriak ezartzea	Hirigintza		✓	✓	✓	-Enplegu planaren gauzatze maila
	Laguntzailea: Berdintasuna					
E.12.3 Sustatzea herrian jolas egiteko guneak, berdeguneak, korridore berdeak, sare berdeak, etab. sortzea, herritarren iritziak entzunda.	Ingurumena			✓		-Hirigintzako plan orokorrean sartutako neurriak
	Hirigintza					
E.12.4 Familia erantzukizunak dituzten eta bakarrik dauden emakumeen beharrei erantzutea.	Gizarte Zerbitzuak	✓	✓	✓	✓	-Hartutako neurriak -Neurriak hartu dituzten emakumeen zenbatekoa

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA					
HELBURUA	13. helburua: Berdintasunean oinarritutako heziketa bultzatzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA/ADIERAZLEAK				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
E.13.1 Udaletik bultzatzea eta jarraipena egitea eremu formal eta ez formaleko pertsonal teknikoa trebatzearen inguruan (Adb: musika eskola, etab.).	Hezkuntza	✓	✓	✓	✓	-Gauzatutako ekintzen kopurua
	Gazteria					
	Laguntzailea:					
	Berdintasuna					
E.13.2 Herriko eragileei begira antolatutako trebakuntza saioen inguruko planifikazioa eta estrategiak adostu (Adb: ingurumena, euskara eta berdintasuna uztartzea)	Ingurumena		✓			-Estrategiak zehazteko egindako bilera kopurua
	Berdintasuna					
	Euskara					
	Hezkuntza					
E.13.3 Hezkuntza kolektiboarekin batera, hezkuntzako proiektuak aztertu eta gazteei zuzendutako programak landu hezkidetzan aurrera pausuak ematen joateko.	Berdintasuna	✓				-Aztertutako proiektuen kopurua -Gazteentzat zuzendutako programa kopurua
	Laguntzailea:					
	Hezkuntza					

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA	INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK					
HELBURUA	14. helburua: Emakumeenganako edozein indarkeria motari aurre egiteko mekanismoak ezartzea					
EKINTZAK	ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
		2020	2021	2022	2023	
I.14.1. Jazarpen sexuala eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa martxan jartzea.	Berdintasuna			✓		-Protokoloaren onarpena -Protokoloa martxan jartzeko eginiko ekintzak.
	Idazkaritza					
I.14.2. Indarkeria matxistaren biktime diren emakumeei arreta hobe emateko erakundeen arteko koordinaziorako protokoloaren jarraipenarekin jarraitu.	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	-Koordinazio mahaian parte hartzen duten erakundeen arduradun teknikariek eginiko bilera kopurua.
	Gizarte-Zerbitzuak Udaltzaingoa					
I.14.3. Indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren inguruko formazioa eskaini mahai teknikoari eta informatu bestelako udal eragileei.	Berdintasuna	✓	✓			-Jasotako formazioaren helburuen betetze maila. -Parte hartzaile kopurua -Bilera kopurua.
I.14.4. Indarkeria matxistaren kontrako protokoloaren ezarpen egokia ahalbidetu.	Berdintasuna	✓	✓			
	Gizarte Zerbitzuak Udaltzaingoa					

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

I.14.5. Jaietako eraso matxisten prebentzio kanpainekin jarraitu.	Berdintasuna	✓	✓	✓	✓	-Jaietan egindako kanpaina kopurua.

DEBAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

LAN-ILDOA				INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK					
HELBURUA				15. helburua: Debako emakumeen segurtasuna indartzeko ekintzan martxan jartzea					
EKINTZAK				ARDURADUNAK	EXEKUZIO ALDIA/AURREKONTUA				ADIERAZLEAK
					2020	2021	2022	2023	
I.15.1	Puntu Beltzen	Maparen	jarraipena gauzatzea	Hirigintza	✓	✓	✓	✓	-Burututako ekintzen kopurua. -Burututako ekintzen eragina.

7. DEBAKO II. BERDINTASUN PLANA KUDEATZEKO EGITURAK

Debako II. Berdintasun Planaren martxan jartze egoki bat egiteko eta bere jarraipen eta ebaluaketa egiteko, 3 gestio estruktura erabiltzea aurreikusten dira:

- **Talde motorra:** berdintasun zinegotziak eta berdintasun teknikariak osatuko dute.
- **Departamenduen arteko Batzordea** – Jarraipen eta koordinazio estruktura:
Udaleko arlo ezberdinetako pertsonal politiko eta teknikoek osatuko dute. Beraien lan eremu edo alorrean aurrera eramaten diren berdintasun politikak eta horien gaineko erabakiak koordinatzeko funtzioa izango du. Hala nola, ebaluaketa eta jarraipenak egitea beraien sailetan egiten diren lanak aurrera ematen.
- **Berdintasun Batzorde politikoa**– Jarraipen eta koordinazio estruktura:
Udaleko sail ezberdinetako pertsonal politikoa (gubernuan eta oposizioan daudenak), herriko talde feminista, emakumez osatuta taldeak eta gaierikiko interesa duten pertsonen osatuko dute. Berdintasun lan eremu edo alorrean aurrera eramaten diren berdintasun politiken jarraipena eta koordinazio politikoaren funtzioa izango du.
- **Herriaren parte hartze egitura:** II. Berdintasun Planaren indarraldian zehar Berdintasun Teknikaria kontratatzeke asmoa dago. Gauzatzen denean, erraztu egingo da herriko talde feministarekin, emakumeen pala taldearekin eta emakume migranteekin elkarlana. Horregatik, Teknikaria kontratatzean parte hartze egitura bat sortzea proposatzen da.

JARRAIPENA ETA EBALUAKETA

Urtero, sail bakoitzak urteko plan operatiboa egingo du, landu beharreko ekintzak ezartzeko eta beharrezko baliabideak aurreikusi eta prestatzeko. Sailtako arduradunek Berdintasun sailaren laguntza izango dute horretarako. Aurreikusitako ekintzak gauzatzen joan ahala, jarraipen fitxa batzuek osatzen joango dira arduradunak. Ebaluaketa fitzak anexoan gehitzen dira, (ikus 1.2 eta 1.3 anexoak).

Urtero jasoko diren datuekin, azken urtean, Plan osoaren ebaluaketa garatuko da, zeinak aurrez ezarritako helburuak lortzeko planaren egokitasuna aztertuko duen. Horrekin batera, Debako emakumeen eta gizonen berdintasunerako erronka berriak azaleratuko ditu.

Debako Emakumeen eta Gizonen II. Berdintasun Planak hiru ebaluazio maila izango ditu:

1. **Betetze mailaren ebaluazioa:** helburua Planean ezarri diren ekintzetatik aurrera eraman diren ekintzen zenbatekoa aztertzea izango da. Ebaluazio etengabea izango da, Plana indarrean dagoen denboran zehar iraungo du eta amaiera txosten batean jasoko da bertan ateratako informazioa.



2. **Emaitzen ebaluazioa:** Planean ezarri diren helburu operatiboak zenbateraino bete diren baloratzeko, txosten honetan ezarritako adierazleak aztertuko dira. Urtean behin egingo da ebaluazio hau.



3. **Eraginaren ebaluazioa:** Debako Emakumeen eta Gizonen II Berdintasun Planean zehar jasoko diren esperotako emaitzetan oinarrituko da. Espero diren emaitza horien bidez Berdintasun Planak izan duen inpaktua neurtuko da. Helburua Berdintasun Planak eragiten dien taldeen egoeraren aldaketa ikustea izango da. Ebaluazio hau Plana amaieran egingo da.



Emakundek gomendatzen dituen irizpideak ere kontuan izango dira prozesuan zehar:

- Gauzatzearen erantzukizun politikoa zein teknikoa duten pertsonak proiektuaren hasierako faseetatik ebaluazioraino inplikatzeko sustatzea.
- Laneko tresnak eta esku hartzen duten zuzendaritza eta enpresa publiko guztien koordinazioa dinamizatzea; izan ere, funtsezkoa da ebaluazioa auto-erreferentziazkoa bakarrik ez izatea, baizik partaide guztiek elkarrekin eginiko lana izatea.
- Barneko komunikaziorako sistemak eta ebaluazioan inplikatutako pertsonen arteko harreman-fluxuak sustatzea ebaluazioan, hala, elkarrekin lan egin eta elkarri informazioa errazago emateko.
- Parte-hartzeko prozesuak diseinatzea, erabiltzaileen eta Plana ezartzearekin lotura izan duten beste pertsona batzuen balorazioa ere ebaluazioan sartzeko.
- Programa ebaluatu ondoren, ebaluazioaren emaitzak jakinaraztea komeni da barneko eta kanpoko komunikazio-prozesuen bidez, eta lorpenak nahiz hobetu beharreko alderdiak erakutsiko dituen irudi orekatua eskaintzen saiatu behar da.
- Ebaluazioaren emaitzak hurrengo Planen plangintza hobetzeko eta beste Programa edota planak abian jartzeko erabiltzea, hala, berdintasun-politikek lortutako emaitzak hobetzeko.

8- ERANSKINAK

1.1 ERANSKINA: BERDINTASUNARI BURUZKO EGINDAKO EKINTZA FORMATIBOEN ORRIA.

Ekintza formatiboa burutu dutenek bete behar dute eta gero, berdintasun arlora bidali.

Departamendua		Ekintza formatiboaren izena (ikastaroa, hitzaldia, jardunaldia)	
Bertaratutakoak (sexuaren arabera bereizita)		Ekintza sustatu duen erakundea	
Data		Lekua	
Iraupena (ordu kopurua)		Dokumentazio gehigarria badago? (baiezko kasuetan non aurkitzen den azaldu)	
Ateratako ikasketak:			

Oharrak

1.2 ERANSKINA. SEIHILEKO EKINTZEN JARRAIPEN ORRIA

Ekintzen arduradunek bete behar dute fitxa eta berdintasun arlora bidali

Ekintza zehaztu		Ardatz eta helburu zenbakia	
Arduraduna		Eskainitako ordu kopurua (bilerak, egindako ekintzak...)	
Data edo burutzeko epea		Zuzendutako aurrekontua	
Lortutako helburu zehatzak:			

Gaur egun ekintza hau aurkitzen den egoera (egindako aldaketak, egindako ekintzak, sortutako materialak, izandako bilerak, ...):

Izandako zailtasunak edo ezustekoak eta hauen ondorioak:

Adierazleak:

Parte hartzea (sexua, adina) (ahal izanez gero)	Emakume kopurua: Adin tarteak: Gizon kopurua: Adin tarteak:
Ikasitako ondorioak:	

1.3 ERANSKINA. PLANAREN HELBURUEN URTEKO EBALUAZIO ORRIA (Arlo bakoitzeko teknikariak bete eta ondoren berdintasun teknikariari bidali)

Helburua zehaztu	Ardatza	
Arduraduna	Eskaintako ordu kopurua (bilerak, egindako ekintzak,..)	
Data edo burutzeko epea	Zuzendutako aurrekontua	
Lortutako helburu zehatzak:		
Espero diren emaitzak		Lortutako emaitzak
Planean aurreikusitak ez zeuden ekintzak:		
Emaitzen adierazleak:		
Prozesuzko adierazleak:		

Balorazio kualitatiboa:

- ⇒ Zein alderdik erraztu dute helburuaren lorpena?
- ⇒ Zein zailtasun egon dira helburuaren garapenerako?
- ⇒ Zeintzuk parte hartu dute helburuen lorpenean eta nolakoa izan da hauen parte hartze maila?
- ⇒ Zein aldaketa eragin ditu pertsonengan, erakundeengan edota udalerrian?
- ⇒ Herritarren parte-hartzea kontutan izan al da? Zein bide jarri dira martxan horretarako (kontseiluak, elkarteak, bloga,...)?
- ⇒ Zein eragile sozialekin kontatu da?
- ⇒ Dauden zerbitzu, baliabide eta ekintzak finkatu al dira?
- ⇒ Gabeziak antzeman al dira, bete gabe gelditu diren beharrak? Baiezko kasuetan azaldu zeintzuk izan diren.
- ⇒ Martxan jarri al dira baliabide, zerbitzu edota bestelako mekanismo egonkorrak (koordinazio lanetarako, datuak bildu eta tratatzeko, e.a.)?
- ⇒ Nolako arazoak egon dira plana ebaluatzeko (bai ekintzak baita helburuak ere)?

1.4 ERANSKINA. BERDINTASUN PLANAREN URTEKO JARDUERA PLANA

URTEA: _____

	HILABETEAK												
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	
LAN ILDOA													
LAN ILDOAREN AURREKONTUA													
LAN ILDOA													
LAN ILDOAREN AURREKONTUA													

1.5 ERANSKINA: GLOSATEGIA

- ✓ **AHALDUNTZEA.** boterea areagotzea. pertsona bezala indartzea eta norberaren egoera sozial, ekonomiko eta politikoa sendotzea. Estrategia hori gehiago garatu zen Beijingen 1995ean egindako Emakumeen Munduko IV. Konferentzian, bai eta finkatu ere. Hiru mailatako ahalduntze prozesua aitortzen da: ahalduntze indibiduala, ahalduntze kolektiboa, eta ahalduntze sozial eta politikoa.
- ✓ **EKINTZA POSITIBOA.** Aldi baterako neurriak, benetako berdintasuna lortze bidean. Neurri horiek zuzendu edota konpondu egin beharko lukete generoaren sistemak eta praktikak, itxuraz neutralak, sorrarazten duten bereizkeria.
- ✓ **EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA:** Sexu-arrazoiengatik egon daitezkeen oztopoak ezabatzea, partaidetza ekonomiko, politiko eta sozialerako.
- ✓ **EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA:** Zeharkako edo zuzeneko diskriminazio eza, sexuan oinarrituta (ikus "Zuzeneko diskriminazioa" eta "Zeharkako diskriminazioa").
- ✓ **EMAKUME ETA GIZONEN PARTAIDETZA OREKATUA:** Botere eta erabakiak hartzeko posizioen banaketa (% 40 eta % 60 artean, sexuaren arabera) emakume eta gizonen artean, bizitzaren esfera guztietan; hori baldintza garrantzitsua da gizon eta emakume arteko berdintasunerako.
- ✓ **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA.** Emakumeoi emakume izateagatik egindako indarkeria da. Zehatzago, sexu-genero sisteman oinarritzen den eta emakumea helburu duen edozein indarkeria ekintza da, emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten diena edo eragin diezaiekeena, baita halako ekintzak egiteko mehatxuak, hertsadura edo askatasun-kentze arbitrarioa ere, bizitza publikoan zein pribatuan gertatuak.
- ✓ **ERANTZUKIDETASUNA:** kontziliazioz hitz egin ahal izateko etzeko esparruan erantzukidetasunari buruz hitz egin behar da. Kontzeptuak honek etxeko lanen eta erantzukizun familiarren banaketa (hala nola menpeko pertsonen zaintza eta heziketa) orekatuari aipamena egiten dio, emakumeen eta gizonen denbora modu zuzen batean banatu ahal izateko helburuarekin.
- ✓ **GENEROA:** Gizonen eta emakumeen arteko diferentzia sozialei erreferentzia egiten dien kontzeptua (biologikoen aldean); diferentzia horiek ikasiak izan dira, denborarekin aldatzen doaz eta aldaketak dituzte kulturen artean eta kultura beraren barruan.
- ✓ **GENEROAREN ARABERAKO ANALISIA:** Gizonei eta emakumeei tradizioan esleitu zaizkien rola direla eta, beren artean dauden baldintzen, beharren, partaidetza indizeen, baliabide eta garapenerako eskuratze mailaren, aktiboen kontrolaren, erabakiak hartzeko ahalmenaren, eta abarren gaineko diferentzien azterketa.
- ✓ **GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA:** Proposamen politikoen ex-ante azterketa, emakumeei eta gizonei modu desberdinean eragiten dien aztertze, horiek egokitzeko, eragin diskriminatzaileak neutralizatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.

- ✓ **GENERO IKUSPEGIAREN INTEGRAZIOA POLITIKETAN/ZEHARKAKOTASUNA:** Emakume eta gizonen egoera, behar eta lehentasunak sistematikoki integratzea politika guztietan eta fase guztietan, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko..
- ✓ **INDARKERIA MATXISTA** Sexu genero sistemaren bidez ezarritako botere-harremanean oinarritutako indarkeria. Tradizioz esleitutako genero-eskemak –intersexualak, transgeneroa, transexualak, homosexualak, lesbikoak, eta ohiko sexu/genero eskema birsortzeari uko egiten dioten emakumeak eta gizonak– apurten dituzten gorputzei espazio fisiko eta sinboliko guztietan egiten zaizkien indarkeria mota guztiak barnean hartzen dituena. Gorputz intsumiso horiek pairatzen dituzten zuzeneko indarkeriaren adierazpenetatik asko haurtzaroan agertzen direla eta, hainbat molde hartuta, bizitza osoan mantentzen direla ulertu behar da.
- ✓ **INTERSEKZIONALITATEA:** emakume izateak sortzen duen desberdintasunaz gain, errentak, jatorrizko herrialdeak, desgaitasunak, sexu aukerak, genero-identitateak, etniak, adinak, eta abarrek desberdintasun gehiago sortzen dituzten edota sortu dezaketen alderdiak dira.
- ✓ **KUOTA:** Kolektibo berezi bati ematen zaion proportzioa edo esleitu behar zaizkion postu, aulki edo baliabideak, arau eta irizpide batzuei jarraiki; horrela, aurretik egon den desoreka bat zuzendu nahi da, normalean erabakiak hartzeko posizioetan edo prestakuntzarako edo lanpostuetarako aukeretara jotzeari dagokionez.
- ✓ **LANA ETA FAMILIA BIZITZA BATERATZEA:** Familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzea, emakume eta gizonen haien bizitzako esparru guztietan ardura hartzeko denbora eta espazioa izateko. Baimen sistemak ezartzea suposatuko luke horrek, horretarako egitura bat sortzea eta lan ingurunea antolatzea.
- ✓ **MATXISMOA.** Sistema patriarkalean oinarritzen den egituraketa, jarrera eta praktika sozialak dira, gizonen nagusikeria adierazten eta iraunarazten dutenak, emakumeen eskubideen eta askatasunen ginetik.
- ✓ **PARTAIDETZA TASAK:** Talde jakin baten partaidetza indizea –adibidez, emakumeak, gizonak, guraso bakarreko familia, etab.-, partaidetza globalaren ehunekotan.
- ✓ **PATRIARKATUA:** gizonak emakumeen gain nagusitzen diren sistema edo antolaketa soziala, historian zehar forma desberdinak hartu izan dituena
- ✓ **SEXISMOA:** Diskriminazio modu aktibo eta zehatza. Emakumezkoak direna edo egiten dutena gaitzesten eta baliogabetzen duen jokabide edo jarrera da, emakumeak ezkututzen ditu.
- ✓ **SEXUA (zentzu biologikoan):** irizpide biologikoen arabera eginiko bereizketa. Bereizketa horren arabera, arrak eta emeak sailkatzen dira, eta intersexualtzat jotzen dira ezarritako irizpide horretatik kanpora geratzen direnak.
- ✓ **SEXU-GENERO SISTEMA:** Rol tradizional femeninoak eta maskulinoak ezartzen eta iraunarazten dituen egitura sozioekonomikoa, ustezko oinarri biologikoen arabera. Sistema edo prozesu horren bidez, “generoaren identitatea” geureganatzen dugu, hau da, “emakume ala gizon egiten gara”, bizi garen gizartearen ereduaren arabera. Sexuaren araberrako esleitze-prozesu hori jaio

aurretik hasten da eta bizialdi osoan dirau. Gizarteratzen gaituzten faktore nagusiek (familia, eskola, komunikabideak, etab.) rol, balio, jarrera, jarduera, gaitasun eta zeregin jakin batzuk esleitzen dizkiete emakumeei eta beste batzuk, desberdinak noski, gizonezkoei.

- ✓ **Sexu-genero SISTEMAREN ARABERA EZARRITAKO ROLAK:** Gizonei eta emakumeei esleitutako ekintza eta jokabideen multzoa, sexu-genero sisteman deskribatutakoaren arabera irakatsiak eta iraunaraziak.
- ✓ **SEXUAGATIKO JAZARPENA.** Pertsona baten sexua dela-eta haren duintasunari eraso egiteko eta haren aurkako inguru izutzailea, iraingarria edo laidogarria sortzeko zeinahi portaera.
- ✓ **SEXU-JAZARPENA.** Pertsona baten duintasunari eraso egiteko asmoz egiten den edo eraso egiten dion zeinahi sexu-portaera, hitzekoa edo fisikoa, batez ere inguru izutzailea, iraingarria edo laidogarria sortzen bada.
- ✓ **SEXUAREN ARABERA BEREIZITAKO DATUAK:** Datuen eta informazio estatistikoaren bilketa eta bereizketa sexuaren arabera, konparaziozko analisia egiteko aukera ematen duena, "genero"aren berezitasunak kontuan hartuta.
- ✓ **ZUZENKO DISKRIMINAZIOA:** Pertsona bat sexua dela eta kalte eginez tratatzen denean bizi den egoera.
- ✓ **ZEHARKAKO DISKRIMINAZIOA:** Lege, araudi, politika edo praktika batek, neutralak ematen duenak, kontrako eragina duenean sexu bateko edo besteko kideengan, tratu diferentzia helburu objektiboen bidez justifikatu ezean (Kontseiluaren 76/207/CEE Zuzentaraua, otsailaren 9koa, 1976.02.14ko 39 DO L).